



Antsoainen Udako Txokoa eta udako jostaldia

**HAUR HEZKUNTZA ETA
LEHEN HEZKUNTZA**

Uztailak 19 - abuztuak 6,
Astelehenetik ostiralera.
09:30-13:00 h.
D eredia.

IZEN-EMATEA:
ekainaren 1etik 4ra,
euskera@antsoain.es
helbidean.



info+

www.antsoain.eus webgunean

Aisialdia. Udako eta Gabonetako Antsoaingo taldeak atalean.



2021eko UDAKO TXOKOA eta JOSTALDIA

Aisialdia garrantzitsua da umeentzat, eta euskaraz ongi pasatzeko guneak eskolaz kanpo eta oporraldietan izatea ere bai, hizkuntza gaitasunak mantendu eta erregistroak garatzen baitituzte asialdian emandako une horien bidez. Hori dela eta, Udal Euskara Zerbitzuak honako jarduerak antolatu ditu, D ereduko haurrentzat (Dindaia Fundazioak kudeatuko ditu):

- UDAKO TXOKOA, Haur Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailentzat. Adinari dagozkion jokoak eta uretako jolasak egingen dituzte.
- UDAKO JOSTALDIAK, Lehen Hezkuntzako haurrentzat, aurreneko mailatik seigarreneneraino, zirkoa, multikirola, natura eta ura ardatz dituzten jarduerekin.

NOIZ?

Uztailak 19 - abuztuak 6. Astelehenetik ostiralera, 09:30-13:00 h.

NON?

Eguraldia lagun, kanpoko jarduerak egingen dira nagusiki, eta, behar izanez gero, Lotza kulturagunean elkartuko dira taldeak.

NORENTZAT?

- Haur Hezkuntza: 1, 2 eta 3 mailak.
- Lehen Hezkuntza: lehenengo mailatik seigarrenera.

IZEN-EMATEA

Ekainaren 1etik 4ra, euskera@ansoain.es helbidean edo 948 382 241 telefonoan (09:00 -14:00etara). Plaza mugatuak. Antsoainen erroldatutakoek eta hiru asteetarako apuntatzen direnek izanen dute lehentasuna. Plazak baino izen-emate gehiago baleude, zozketa egingen litzateke. Izen-ematea bukatu ostean, Lehen Hezkuntzako haurrak adinaren arabera taldetan banatuko dira.

MATRIKULA

Izen-ematearen ondoren, Euskara Zerbitzuak plaza baieztatuko du eta matrikula egiteko jarraibideak emanen dizkizue.





PREZIOA	ANTSOAINEN ERROLDATUAK	BERTAN ERROLDATU GABEAK
3 aste	75 €	90 €
2 aste	55 €	65 €
aste 1	30 €	35 €

IZENA EMATEKO DATUAK:

Haurraren izen-abizenak:

.....

Jaiotza data:

Ikastetxea eta maila:

Herria:

Tel:

Mail helbidea:

☐ Aste 1

☐ 2 aste

☐ 3 aste

☐ Uztailak 19-23

☐ Uztailak 26-30

☐ Abuztuak 2-6

Haurrek ezin izanen dute sartu COVID 19rekin bateragarriak diren sintomak adieraziz gero. Musukoa jantzita edukitzea eta eskuak hidrogelaz bustitzea derrigorrezkoa izanen da. Kanpoan itxaron behar zaie haurrei, eta ezin da jostailurik, jatekorik, edatekorik... ekarri kanpotik; soilik, norberarentzako ura eta hamaiketakoa.

DATUEN BABESA: Antsoaingo Udala da datu pertsonal hauen tratamenduaren arduraduna. Datu horien erabilerak helburu du Antsoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen udako tailer hauek kudeatzea botere publikoa baliatuz. Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu Udalaren egoitzan. Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza aurki dezakezu gure webgunean:

[www.ansoain.es/eu/10-2/aviso-legal/Legezko abisuaren atala](http://www.ansoain.es/eu/10-2/aviso-legal/Legezko_abisuaren_atala). **Pribatutasun politika.**



Antsoaingo Udala Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskara Municipal de Ansoáin

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua